

# ATZERRITARTASUN ESKUBIDEARI BURUZKO GAIAK

## **ATZERRIKO PERTSONEN LAN KONTRATAZIOA**

2023ko abendua



Gizarteratzea eta Kulturarteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzua  
Servicio Vasco de Integración y Convivencia Intercultural

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



MIGRAZIORAKO  
EUSKAL  
ITUN SOZIALA

**PACTO SOCIAL  
VASCO PARA  
LA MIGRACIÓN**

Dokumentuaren egilea:

**Biltzen.** Gizarteratzea eta Kulturarteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzua  
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila  
Eusko Jaurlaritzza  
Basurtu-Kastrexana 70 errepidea- 48002 Bilbo  
biltzen@biltzen.org  
www.biltzen.org



Gizarteratzea eta Kulturarteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzua  
Servicio Vasco de Integración y Convivencia Intercultural

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES










“Enpresen rola atzerritartasun-prozeduretan” gure aurreko argitalpena osatu eta indartzeko, atzerriko pertsonen lan-kontratazioarekin lotutako gaiekin jarraitzen dugu.

Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko herrialde bateko nazionalitatea duen pertsona edo pertsona komunitario bat den desberdindu behar da. Lehen kasuan, kontratazioa egin daiteke lan-baimena lortzeko aurretiazko izapiderik gabe (atzerritarren identifikazio-zenbakia – AIZ soilik eskatu behar da Gizarte Segurantzaren alta emateko), Europar Batasuneko Estatu kideetako eta Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Hitzarmenaren parte diren beste estatu batzuetako herritarrek Espainian sartzeko, libre mugitzeko eta bizitzeko duten eskubideari buruzko 2007ko otsailaren 16ko 240/2007 Errege Dekretuaren arabera.

Aldiz, kontratatu beharreko pertsona komunitate kanpoko den kasuetarako, beharrezkoa da bere egoera administratiboa egiaztatzea. Hau da, lan egiteko aukera ematen duen egonaldi-edo bizileku-baimenik baduen egiaztatzea edo, hala ez bada, hori ahalbidetzen duen dagokion baimenaren eskaera-izapidea egiaztatzea (esaterako, errotze-figuraren bitartez, kasu hori jorratu genuen dagoeneko maiatzeko argitalpenean).

Jarraian, **kontratatu nahi den atzerriko pertsona batek izan ditzakeen hainbat egoera administratibo eta dokumentu** aurkeztuko ditugu, baita lan-kontratua egin aurretik kontuan hartu beharreko puntu nagusiak ere. Hau da, **egoera administratibo erregularretik abiatuko gara.**



	• IRAUPEN LABURREKO BISAREN TITULARRA	5
	• IKASLE EGONALDI BATERAKO BAIMENAREN TITULARRA	6
	• LAN EGITEKO BAIMENA EMATEN DUEN ALDI BATERAKO BIZILEKU BAIMENAREN TITULARRA	7
	• BIZITZEKO ETA LAN EGITEKO ALDI BATERAKO BAIMENAREN TITULARRA	8
	• LAN EGITEKO BAIMENIK EMATEN EZ DUEN ALDI BATERAKO BIZILEKU BAIMENAREN TITULARRA	9
	• IRAUPEN LUZEKO BIZILEKU BAIMENAREN TITULARRA	10
	• ALDI BATERAKO BIZILEKU BAIMENAREN TITULARRA, FAMILIA BERRELKARKETAREN BITARTEZ	11
	• EUROPAR BATASUNEKO HERRITARRAREN SENIDEAREN BIZILEKU TXARTELAREN TITULARRA	12



## • IRAUPEN LABURREKO BISAREN TITULARRA

**Zein da hasierako egoera?** Atzerriko pertsonak **IRAUPEN LABURREKO BISA** (gehienez ere 90 egunetarako) du edo bisarik gabe sartu da herrialdera, pasaportearekin bakarrik, bere jatorri-herrialdearen arabera.

[Atzerriko mugak gurutzatzeko bisa derrigorrezkoa duten eta herritarrak bete behar horretatik salbuetsita dauden hirugarren herrialdeen zerrenda.](#)

Hortaz, legezko egonaldi-egoeran dago.

**Kontrata dezaket?** Ez, ez du lan egiteko baimenik.

**Izapiderik egin behar da?** Oraindik kontratatzeko asmorik ez badago, enplegatzaileak bizitzeko eta lan egiteko baimena eskatu behar du Atzerritartasun Bulegoan, eta, ondoren, atzerritarrak dagokion bisa eskatu beharko du jatorrizko herrialdearen Enbaxadan edo Kontsulatuan. Hortaz, bisan baimentzen den aldiaren barruan itzuli beharko du. Prozedura horretan, enpleguaren egoera nazionalak kontratatzea baimendu behar du.



## • IKASLE EGONALDI BATERAKO BAIMENAREN TITULARRA

**Zein da bere egoera administratiboa?** Atzerritarra **IKASLE EGONALDI BATERAKO BAIMENAREN TITULARRA** da.

**Lan-harremana has dezakegu?** Baimenak lan egitea baimentzen duen hala ez egiaztatu behar da. Ikasleak goi mailako ikasketak, enplegurako ikasketa arauak edo ziurtagiri profesionala lortzera bideratutako ikasketak egiten baditu, edo bere prestakuntzarekin gaitasun teknikoaren ziurtagiria edo lanbide espezifiko bat egiteko beharrezkoa den prestakuntza profesionala eskura baldin badezake, ikasle-egonaldi baterako baimenak besteen kontura eta bere kabuz lan egiteko baimena emango dio, berariazko baimenik eskatu beharrik gabe. Hala ere, bateragarria izan behar da ikasketekin, beraz, mugak daude: lanaldia ezin da 30 orduetik gorakoa izan asteen.

**Aldez aurretik izapiderik egin behar dut?** Ikasle-egoera horrek lan egiteko baimenik ematen ez badu, aldez aurretik eskatu beharko da baimen hori, eta ikasteko egonaldiaren iraupen berbera izango du, bi jarduerak uztartu ahal izateko.

Eta langilearen helburua ikasketak amaitu ondoren soilik lanean jardutea baldin bada, ikasle-egonaldia aldatzeko eta bizitzeko eta lan egiteko baimena jasotzeko eska dezake dagokion Atzerritartasun Bulegoan:

<https://www.inclusion.gob.es/web/migraciones/w/modificacion-de-la-situacion-de-estancia-por-estudios-investigacion-formacion-o-practicas-a-la-situacion-de-residencia-y-trabajo-por-cuenta-ajena-inicial>



## • LAN EGITEKO BAIMENA EMATEN DUEN ALDI BATERAKO BIZILEKU BAIMENAREN TITULARRA

**Hasierako egoera baldin bada...LAN EGITEKO BAIMENA EMATEN DUEN ALDI BATERAKO BIZILEKU BAIMENAREN TITULARRA** Esaterako, atzerriko pertsonak errotze sozialaren figuraren bitartez lortu badu baimena, urtebeteko iraupenarekin.

**Lan egiteko kontratatu daiteke?** Bai, Gizarte Segurantzaren alta eman dezake baimen hori besteen kontura lan egitekoa baldin bada.

**Aurretiazko izapiderik?** Ez da beharrezkoa aurretiazko izapiderik egitea. Berritzeko (aldaketa) epearen barruan baldin badago, langileak Atzerritartasun Bulegoan eskatu beharko du baimena iraungi baino 60 egun lehenagotik hasi eta iraungi osteko 90 egunak igaro baino lehen. Nolanahi ere, baimena iraungi arren, aurkeztutako berritze-eskaerarekin iraupena luzatu egiteko da, ebazpena izan arte. Beraz, ez dago arazorik lanean jarraitzeko.



- **BIZITZEKO ETA LAN EGITEKO ALDI BATERAKO BAIMENAREN TITULARRA**

**Lan egiteko baimena du? BIZITZEKO ETA LAN EGITEKO ALDI BATERAKO BAIMENAREN TITULARRA** baldin bada.

**Kontratatu nahi dut...** Kontratatu daiteke, baina aldez aurretik egiaztatu beharko da ea mugatzen duen argibiderik badagoen, esaterako, norbere kontura edo besteen kontura lan egiteko erregimenera mugatzen duen agindua, edo sektorearen edo eremu geografikoaren araberako muga.

**Izapiderik egin behar da Atzerritartasun Bulegoan?** Ez da beharrezkoa besteen kontura lan egiteko baimena ematen duela egiaztatzen bada.

Bizitzeko eta norbere kontura lan egiteko baimena dela egiaztatzen bada, besteen kontura lan egiteko aldaketa eska daiteke.

<https://www.inclusion.gob.es/web/migraciones/w/modificacion-de-la-autorizacion-de-residencia-y-trabajo-por-cuenta-ajena-o-cuenta-propia-a-residencia-residencia-con-excepcion-residencia-y-trabajo-como-investigacion-o-profesional-altamente-cualificado-hi-90>

Edo, gutxienez, bi erregimenak uztartzea

<https://www.inclusion.gob.es/web/migraciones/w/compatibilidad-residencia-y-trabajo-por-cuenta-ajena-/residencia-y-trabajo-por-cuenta-propia>





- **LAN EGITEKO BAIMENIK EMATEN EZ DUEN ALDI BATERAKO BIZILEKU BAIMENAREN TITULARRA**

**Zer gertatuko litzateke...? LAN EGITEKO BAIMENIK EMATEN EZ DUEN ALDI BATERAKO BIZILEKU BAIMENAREN TITULARRA** bada.

**Kontratazioari dagokionez...** Ezin da zuzenean eman alta Gizarte Segurantzari.

**Kontratatu ahal izateko izapideren bat egin daiteke?:** Lan egiteko baimena eskatu beharko da edo lan egiteko eta bizitzeko baimenarengatik aldatzea eskatu.

Nolanahi ere, Atzerriartasun Bulegoaren aldeko ebazpena jaso behar da kontratatu ahal izateko; ezin da kontratatu eskaera ebatzi bitartean.



## • IRAUPEN LUZEKO BIZILEKU BAIMENAREN TITULARRA

**Hasierako egoera hau da: IRAUPEN LUZEKO BIZILEKU BAIMENAREN TITULARRA.** Kasu honetan, bizileku-baimen mugagabea da, eta espainiarrek dituzten baldintza berdinak ematen ditu, araudi aplikagarriak ezartzen duenaren arabera.

**Lan egiteko baimena du?** Txartelean berriaz adierazten ez den arren, iraupen luze edozein herritarrek du bere kabuz edo besteen kontura lan egiteko baimena.

**Izapidea:** Ez da beharrezkoa. Bizileku-baimenaren iraupena amaitzean, dokumentu hori berritzeko eskatu beharko da polizia-etxean, eta ez da izapiderik egin behar Atzerritartasun Legean. Gogoan izan bizileku-baimen mugagabea dela.



- **ALDI BATERAKO BIZILEKU BAIMENAREN TITULARRA DA, FAMILIA BERRELKARKETAREN BITARTEZ**

**Zein da bere egoera administratiboa?** Interesduna **ALDI BATERAKO BIZILEKU BAIMENAREN TITULARRA DA, FAMILIA BERRELKARKETAREN BITARTEZ**

**Kontratatzeko aukera ematen du?** Lan egiteko adinean dagoen ezkontideak, bikotekidea edo seme-alabak familia berrelkartzearen ondorioz lortzen duen bizileku-baimenak norbere kabuz edo besteen kontura lan egiteko baimena ematen du, estatuko edozein lekutan eta edozein lanbide eta sektoretan.

Berrelkartutako pertsonaren baimenak senide hori Espainian sartu den unean berrelkartu duen pertsonak duen baimenaren iraupen bera izango du.

**Izapidea:** Ez da izapide administratibo gehigarririk egin behar, arbasoa izan ezean.



## • EUROPAR BATASUNEKO HERRITARRAREN SENIDEAREN BIZILEKU TXARTELAREN TITULARRA

**Eta... EUROPAR BATASUNEKO HERRITARRAREN SENIDEAREN BIZILEKU TXARTELAREN TITULARRA bada.** Bost urteko iraupena du bizileku-baimenak eta Europar Batasuneko edo EEko nazionalitatea duen senide bati lotuta dago, Europar Batasuneko Estatu kideetako eta Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Hitzarmenaren parte diren beste estatu batzuetako herritarrek Espainian sartzeko, libre mugitzeko eta bizitzeko duten eskubideari buruzko 2007ko otsailaren 16ko 240/2007 Errege Dekretuaren arabera.

**Eta kontratatzeko...** Lan egiteko baimena ematen du beraz txartel horren titularra kontrata daiteke.

**Izapideren bat egin behar da?** Ez, ez da beharrezkoa.



Gizarteratzea eta Kulturarteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzua  
Servicio Vasco de Integración y Convivencia Intercultural



## INFORMAZIO GEHIAGORAKO:

### **Biltzen-Integraziorako eta kulturen arteko Bizikidetzarako Euskal zerbitzua**

Arlo juridikoa: atzerritartasunari buruzko arlo juridikoa  
(09:30-14:00 telefono edo posta elektronikoko bidezko arreta)

- Erabiltzailea:

Tel.: 900 840 890

[asesoria@euskadi.eus](mailto:asesoria@euskadi.eus)

- Profesionala:

Tel.: 944 001 809

[juridika@biltzen.org](mailto:juridika@biltzen.org)

<http://www.biltzen.org>